



Ikasleen pribatutasun  
eta intimitate eskubidea  
errespetatuko duen  
eskolaren alde

# EDITOREA:

FEVAS Plena inclusión Euskadi  
Adimen urritasuna duten pertsonen aldeko  
erakundeen euskal elkartea

Colon de Larreategi, 26 behea C  
48009 Bilbao  
Tfno.: 94 421 14 76  
comunicacion@fevas.org  
www.fevas.org

Gida honen edukia  
FEVAS Plena inclusión Euskadiren  
“Konfidentzialtasuna eskola eremuan.  
Ikasleen funtsezko eskubide bati buruzko  
gogoetarako orientabideak” (2016)  
argitalpenean eta  
In aldizkariaren 13. zenbakian (2017)  
dago oinarrituta.

Eskuragarri [www.fevas.org](http://www.fevas.org) webgunean  
Horiek kontsultatzea gomendatzen da, gaien sakontzeko.

## IRUDIA:

**Pernan Goñi**

**Lege gordailua:**

BI-159-2018

Editorea:



FEVAS Plena Inclusión Euskadi  
Adimen urritasuna duten  
pertsonen aldeko erakundeen  
euskal elkartea

Laguntzailea:



# “Konfidentziasuna,

pertsonen **duintasuna**

errespetatzeko era da”



- Ikasleen eta haien familien funtsezko eskubidea delako.
- Hezkuntza arloko erantzunak, modu egokian kudeatu behar diren datu konfidentzialak ezagutzea eskatzen duelako.
- Irakaskuntza lanbidearen egitekoa eta betebeharrak morala delako.
- Ikasleen integritateari eta duintasunari kalteak eragitea saihesten duelako.
- Konfiantza, lankidetzeta eta errespetu giroa errazten duelako.

**EGIN BAT ESKOLAKO KONFIDENTZIALTASUNAREN ERRONKAREKIN**

# 1. ZER DA KONFIDENTZIALTASUNA?

Etikarekin, irakaskuntza jardunbideko jokabidea gidatu behar duten betebeharren, arauen, printzipioen eta balioen multzoarekin, zuzenean erlazionatutako gaia da. Hezkuntza eredu inklusibo ereduak bultzatzen duen aniztasunaren aurreko errespetuari dagokio.

## KONFIDENTZIALTASUNA, ETIKAREN FUNTSEZKO ALDERDIA



Pertsona batek era konfidentzian eman duen informazio intimoa ez ezagutaraztea eskatzen du.

Beste kanal batetik jasotako informazioari ere badagokio, pertsonak hori pribatuan gorde nahi duela pentsatzea arrazoizkoa bada.



# FAMILIEI ETA IKASLEEI DAGOKIENEZ

Familiak zein informazio konpartitu nahi duten erabakitzeko gaitasuna dute. Familiak eta ikasleek irakasleen konfidentzialtasunaren nondik norakoa eta mugak ezagutu behar dituzte. Informazio jakin bat ezkutuan gordetzea hezkuntzarako kaltegarri izan daitekeela ere jakin behar dute.

**Konfidentzialtasuna  
bi aldeetan  
aplikatu behar da,  
profesionalen aldetik  
familiengana  
eta alderantziz.**

## KONFIDENTZIALTASUNAREKIN ERLAZIONATUTAKO OINARRIZKO PRINTZIBIOAK



## Konfidentzialtasuna apurtzea

Jokabide inkontzienteez, axolagabekeriez, arinkeriez edo datuen zaintza desegokiak konfidentzialtasuna urra dezakete.



## Konfidentzialtasun betebeharraren salbuespenak

Batzuetan konfidentzialtasun betebeharrak beste eskubide batzuekin talka egiten du. Adibidez, delitu baten berri izatea edo gaixotasun larri bat kutsatzeko arriskua. Kasu horietan, informazioa emateko baimena eskatu behar da; aurkakotasunik badago, egitateak dagokionari jakinaraziko zaizkiola adieraziko zaio inplikatuari.



# Zuzenbideari dagokion gaia

Konfidentziasunerako eskubidea hauek babesten dute:




**Esparru juridiko horretatik, eskolak sustatzen dituen balioak berriro pentsatu behar ditu, eta lortu nahi duen gizarteari buruz hausnartu.**

- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala
- Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen babeserako Europako Hitzarmena.
- Umearen Eskubideei buruzko konbentzioa.
- Urritasuna duten pertsonen Eskubideei buruzko konbentzioa.
- Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.

# 2. JARDUNBIDE ONERAKO

## Irakaskuntzan

- Irakasleak konfidentziasunerako beharra du. Pertsona bakoitza bere ekintzen arduraduna da.



ERANTZUKIZUNA




- Oinarrizko printzipioak izan behar dira kontuan: autonomia, ikasleen onura, justizia eta kalterik ez egitea.

AUTONOMIA

IKASLEEN ONURA

JUSTIZIA

KALTERIK EZ EGITEA



- Asmo onez egindakoa, juridikoki zuzena dena eta etika uztartzea.

- Sen ona, zentzutasuna eta zuhurtzia.

- Gauzak behar bezala egiteko beharrezkoa den informazioa ezagutzea.



GOGOETA EGITEA  
eta LASAI  
EGOTEA



- Konfidentziasunari une oro eustea, baita akats baten ondorioz datu bat jasotzen denean ere.

MALGUTASUNA  
PROFESIONALITASUNA






# OINARRIAK


## Ikastetxean

- Politikak definitzea eta protokoloak diseinatzea, informazioa behar bezala kudeatzen laguntzen dutelako.

## INFORMAZIOA BEHAR BEZALA KUDEATZEA



- Hezkuntza komunitatean sentsibilizazioa sustatzea.



## SENTSIBILIZAZIOA

- Konfidentziasun taldeak eta horien erantzukizunak definitzea. Batzuetan, konfidentziasuna talde bati dagokio, eta talde hori ere konfidentziasuna gordetzeraz behartuta dago.



## TOPAKETAK eta BILERA PERTSONALAK BULTZATZEA

# Informazioaren kudeaketan

- Hezkuntza lana behar bezala egiteko behar-beharrezkoak diren datuak baino ez biltzea. Informazio gehiago izatea ez da hezkuntza arloko erantzun hobe emateko berme.




- Informazio pertsonala ez biltzea, biltegitzea, argitaratzea edo zabaltzea familien edo, hala badagokio, adingabeen baimenik gabe.




- Eragindako pertsonen informazio konfidentziala dagoela, haren edukia, helburuak eta nork duen sarbidea jakinaraztea. Tratamendurako baimena eman behar dute. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, aurka egiteko eta erabilera mugatzeko eskubidea dutela jakin behar dute.


- Hirugarren pertsonen entzun ditzaketen testuinguruetan datu konfidentzialik ez aipatzea.



- "Datuak ematea" eta "balio juizioak egitea" ez nahastea.



- Informazio konfidentziala behar diren neurriekin zaintzea, giltzapean edo sarbide gakoekin.



- Ikastetxetik dokumentu sentsiblerik ez ateratzea kontrol egokirik gabe.

- Informazio plataforma seguruak erabiltzea, inoiz ez zerrenda publikoak.



- Gutunetan, txostenetan edo e-mailetan idatzitakoaren garrantzia kontuan hartzea. Idatzizko testuetan garrantzitsua dena baino ez da jarri behar, hobe da xehetasunak aurrez aurre ematea.



- Ikaslearen hezkuntzarako komenigarria bada, familiari datu konfidentzial bat ona dela iradokitzea.



- Ahal bada, positiboan komunikatzea. Behar izanez gero, alderdi negatiboak ere adierazi behar dira. Nolanahi ere, beti garrantzitsua den zerbaiti buruz.



- Solaskidea nor den segurtasun osoz jakin barik telefonoz informazio zehatza ez ematea.


- Espediente akademikoetan diziplina alderdiei, osasunari... buruzko informazio sentsiblea gordetzea. Egoera jakin batzuetan, egokiagoa da datu bat ez erregistratzea eta soilik memorian gordetzea.




- Tutoretza harremanetan, beste profesional batzuekin izaten den koordinazioan eta ebaluazio saioetan konfidentzialtasuna babestea. Benetan beharrezkoa dena bakarrik azaltzea; zalantza batzuk anonimotasuna gordez argitu daitezke; ezin bada, baimena eskatu behar da.



# Gatazken kudeaketan





Malgutasunez eta zuhurtziaz jokatzea gomendatzen da asmo onez egindakoa, juridikoki zuzena dena eta etikoa dena harmonizatzeko.



# FEVAS PLENA INCLUSIÓN EUSKADI

Familian oinarritzen den elkarte mugimendua gara. Euskal Autonomia Erkidegoan adimen edo garapen urritasuna duten pertsoneri eta haien senideei zerbitzuak ematen dizkieten erakundeak batzen ditugu.

Hauek biltzen ditugu:

Apnabi-Autismo Bizkaia, Aspace Bizkaia, Aspace Gipuzkoa, Apdema, Atzegi, Atzegi Tutoretza Fundazioa, Donostiako Goyeneche Fundazioa, Usoa Tutoretza Fundazioa, Futubide, Gaude, Gautena, Gorabide eta Uliazpi.

Hezkuntzaren arloan eskola-eredu inklusiboa defendatzen dugu, eta familiei laguntza ematen diegu adimen edo garapen urritasuna duten seme-alaben hezkuntza prozesuan.

Hezkuntza komunitateari eta gizarteari begira, gogoeta eta ezagutza sortzen ditugu, irakasleentzako prestakuntzaren eta argitalpenen bitartez eta inklusioa sendotzen laguntzen duten baliabideak, gidak eta bestelako materialak prestatuz.

